


Astekaria

# BARRREN

elgoi



**J. R. Elorza**  
**"GURE ARTEA"n**

 **ARTEGI** San Frantzisko, 40  
Tel. 74 06 87  
ELGOIBAR

**BANATZAILE OFIZIALA** **SONY PHILIPS** **Miele AEG**

IRUDIA, SOINUA ETA ELEKTRAGAILUAK

- 3 LAU HANKATAN**  
"Nola izan liteke inor apolitiko, nor bere iritziari uko egin gabe?" **Hasier Etxeberria.**
- 7 ERREPORTAIA: GESTIO ESKOLA: ENPRESARI GAZTEEN SORLEKU**  
Gestio eskolaren jatorria duela bi urte Deba Beheko eskualdean egindako Plangintza Estrategikoa deritzonaren baitan legoke.
- 10 ARRAZOIAK ERDIBANA: GAUA ALA EGUNA?**  
**Iñaki Alvarez Estarta:** "Izan ere gaua logikaz kanpo dago. Kontraesan hutsa da".  
**Amaia Zabaleta:** "Egunak gauak baino ordu gehiago dituenaz, gure denbora libre gehiago aprobetxatzeko aukera dugu".
- 14 BERBETAN: Luziano Arregi**  
"ELGOIBARKO TELEBISTA... ZERGATIK EZ?"
- 16 KIROLA**  
GAIA: ATLETISMO ESKOLAN PARTE HARTZEKO DEIALDIA  
ELKARRIZKETA: **Daniel Rino**
- 18 ELKARTEETATIK BUELTAN**  
ITXAROPENA ABESBATZA: KANTUAN JO TA KE
- 21 KULTURA**  
JOSE RAMON ELORZAK "GURE ARTEA" KO LEHEN SARIA JASO DU

**TXANDAK**

- |                                  |                              |
|----------------------------------|------------------------------|
| <b>FARMAZIAK:</b>                | <b>29, ostirala: YUDEGO</b>  |
| <b>23, larunbata: ETXEBERRIA</b> | <b>OKINDEGIAK:</b>           |
| <b>24, igandea: ETXEBERRIA</b>   | <b>24, igandea: ZABALETA</b> |
| <b>25, astelehena: ORMAZABAL</b> |                              |
| <b>26, asteartea: ORMAZABAL</b>  |                              |
| <b>27, asteazkena: ORMAZABAL</b> |                              |
| <b>28, osteguna: ORMAZABAL</b>   |                              |



## PREIAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak .....	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak .....	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Udaletxea) .....	7410 08
Odol Emaileen elkarte.....	741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar) .....	112131
Taxi Geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua ..	742158
Mendaroko Udala .....	756100
Ongizate zerbitzua .....	743736
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....	740142
IMI .....	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC) ..	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea .....	741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .....	740296
Zaharren Biltokia .....	740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua .....	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



# Udazken eguna; arratsalde motz eta haizetsuen festa

**K**urutzpe K.E.ak duela hiru urte sorturiko festa honek edizio berri bat bizi izango du datorren hilaren 13an. Aurreko urteetako arrakasta izango duelakotan, Kurutzpetik herritarrek herriarentzat eta bisitarientzat eginiko festa baten aldeko apustua egin dugu. Horrela, besteak beste, Bizi-Poza herriko txaranga, Lilimoon rock taldea eta herriko zenbait bertsolari eta trikitilariaren partaidetza izango du Udazken Egun honetan espero den herritarren

partaidetza izugarriaz gain.

Ekintza hauen ordutegia guztiz zehaztuta ez egon arren, aipagarriak dira besteak beste, eguerdiz Santa Kutzen izango den erromeria, eta arratsaldez, Goñati pilotalekuan burutuko diren jokuak. Gauean, pilotalekuan baita ere, eskualdeko "The Ban", "Kokoteraino" eta "Lilimoon" taldeen saioa izango da diskotekaz gain.

Herritarrek herriarentzat eta bisitarientzat eginiko festa hau burutu ahal



● Herritarren partaidetza ezinbestekoa da udazken festan

izateko Kurutzpek, herritarren partaidetza ezinbestekotzat jotzen du. Horregatik herritarrak parte hartzeraz gonbidatu nahi ditu elkarteak. Hala-

ber, egun honetan Mendarora hurbiltzen diren guztiei jaiegun zoragarri bat pasa dezatela opa nahi die aurrez Kurutzpek.

## Azaroak 7 igandea

### MENDI IRTEERA

Ikatolako guraso eta ikasleentzako.  
Mendaro, Barrenkorta, Kortaberri, Mendaro.  
Antolatzailea: **Arno**

## Azaroak 11 osteguna

### 2,30: HITZALDIA

**Gaia:** Familiaren zeregina krisialdian.  
**Hizlaria:** Inmaculada Maiztegi  
**Tokia:** Mendaroko Kultur Etxea.  
Mendaroko emakume taldeak antolatuta

## Azaroak 13 larunbata

### Udazken eguna

Kurutzpe Elkarteak antolatuta hainbat ekintza egun osoan zehar.

## Azaroak 14 igandea

### Kurutzpe eguna

Kurutzpe Elkartearen 25. urteurrena ospatuko da egun osoan zehar.

### FUTBOLA

Kilimon-Orioko F.T.  
Ospas-gain zelaian

## Azaroak 28 igandea

### MENDI IRTEERA

Ikatolako guraso eta ikasleentzako.  
Mendaro, Larraskanda, Mendaro.  
Antolatzailea: **Arno**

### FUTBOLA

Kilimon-Haizea K.E.  
Ospas-gain zelaian

## Azaroak 25 osteguna

### 2,30: HITZALDIA

**Gaia:** Familiaren zeregina krisialdian.  
**Hizlaria:** Inmaculada Maiztegi  
**Tokia:** Mendaroko Kultur Etxea.  
Mendaroko emakume taldeak antolatuta

## URRIAN

### Jaiotakoak

- Ainize Ansoregi Aranberri. Irailak 29.

### Hildakoak

- Jose Urbieta Arakistain. (63 urte) Urriak 22

### Ezkondutakoak

- Javier Garate eta Alazne Arriola (Urriak 9)  
-Luisa Gonzalez eta Fernando Leon (Urriak 11)  
- Jose Inazio Urain eta Arantza Zulaika (Urriak 23)

## kiliBARREN

**Kolaboratzaileak:** Joseba Etxeberria, Aingeru Gallastegi, Mikel Garate, Haritz Goikoetxea, Iraide Loiola, Maria Longarte, Ziortza Urbieta, Alaitz Vives, Garbiñe zabala.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

# Astoen trukaketa

**H**emen dugun zertifikatu honetan argi eta garbi ikus daiteke nola egiten ziren tratuak XIX. mendean.

Normalki, gure arbasoek ahoz egiten zituzten tratuak, agian, beraiantzat hitzeko tratuak idatzitakoak baino fidagarriagoak zirelako. Kontutan hartu behar dugu, garai hartan, askok eta askok, ez zekitela ez idazten, ez irakurtzen. Beraz, nahiago zuten tratu bat eskuestutze batekin itxi, sinadura batekin baino. Gainera, hitza ematea oso serioa zen, hitz hori bete egin behar baitzen auzokideen begirunea mantentzeko. Norbaitek emandako hitza jabez gero, markatuta gelditzen zen betirako, bai bera eta baita bere familia ere.

Nolanahi ere, idatzitako tratuak ere egiten ziren. Irakurri ditudan dokumentuen arabera gai zeharo ezberdinek tratatzen ziren: abereen salerosketak, diru maileguak, lurren salmentak, trukeak... Tratu hauek lekukoen aurrean egiten ziren, gehienetan auzoko alkatearen aurrean.

Hemengo zertifikatu honetan, Juan Maria de Etxeberriaren eta Juan Francisco Iriondoren arteko asto trukea agertzen da. Lehenengoak, asto beltz bat eman zion bigarrenari asto zuri baten ordeztu, biak oso gustora gelditu zirelarik. Behean, Juan Inazio de Garate jaunaren


sinadura ikus dezakegu, 1869ko Garagartza auzoko alkatea zenarena, hain zuzen.

Hemen aipatu dudan bezala zertifikatu honetan argi azaltzen da gure arbasoek izaten zuten buruhausterik handienetariko bat, sinatzen ez jakitearena zela. Azkenengo lerroan agertzen denez parte hartzaile batek ez zuen kontratua sinatu, ez zekielako sinatzen.


Beste zenbait kasutan, dataren ondoren, sinaduren ordeztu parte hartzaileen izen abizenak eta helbi-deak idazten ziren.

Agian, problema hauek zirela eta ez zirela, garai hartakoak gehiago fidatzen ziren ahozko tratuezt.

## Garbiñe Zabala



Josu Bedialaneta



## Liburutegikoa

- Zenbat partaide daude? ■ 365 bazkide. %26,07koa.
- Ze motatako jendea ibiltzen da? ■ Umeak eta jende gaztea.
- Irakurtzeko zaletasun handia al dago Mendaron? ■ Oso gutxi, jendea derrigortuta etortzen da eskolatik.
- Atsegin al zaizu zure lana? ■ Bai baina beste liburutegi handi batean, ordutegi handi batekin (ia ia ez da liburutegia, elkartokia baizik).
- Autorerik gogokoena? ■ Pio Baroja.
- Zer aldatuko zenuke Mendaroko liburutegitik? ■ Dana, instalazioa txikia da, ordutegia motza eta aurrekontua txikia. Hobe litzateke liburutegia bitan banatzea, alde bat gazteentzat eta bestea umeentzat.
- Zer egiten du ondarrutar batek Mendaron? ■ Ahal duen guztia.
- Filme bat ala elaberri bat? ■ Kasuaren arabera. Elaberria.
- Libururik gogokoena? ■ “Cien años de soledad” Gabriel García Marquez-ena.
- Gustatuko al litzaizuke idazle izatea? ■ Historiarekin zerikusia duten artikulua idaztekotan bai.
- Gomendatu liburu bat: ■ “Paz en la guerra” Unamunorena.

## EXMAHE S.L.

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK

### BULEGOAK:

Azpilgoeta, 3  
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21  
20 850 MENDARO

### ALMAZENA-TAILERRA:


Pedro Muguruza, 25  
TEL. 74 36 46  
20 870 ELGOIBAR

## TOKI ALAI jatetxea

- Bazkariak
- Pintxo hotzak eta beroak
- Gosariak

**Goizeko 8etatik zabalik**

Mendarozabal 2. Tel. 75 60 72



● Arrakasta handia izan zuen hilaren 9an *Aitzpe* elkartearen egin zen Bertso afariak. Ehun pertsona inguru bildu ziren Sebastian Lizaso eta Andoni Egañaren bertsoak entzutea eta, dudarik ez, bapo afaltzera. Gai jartzaile lanetan Jesus Mari Etxezarreta aritu zen eta bertsolariak atseden hartzen zuten tartetan Vitoriano Loiola trikitalariak jardun zuen.

### ✓ Trikitixa eta herri dantzen ikastaroa

*Mendaroko gazteak* Dantza Taldeak antolatuta dantza ikastaro bat hasiko da Mendaron azaroak 2an, asteartea. Helduei zuzenduta dagoen ikastaro honen helburua Plazako dantzak ikasi edota hobetzea da. Parte hartu nahi duena azal dadila egun horretan bertan, 8etan, Mojetako lokalera.

### ✓ Irteerak Barrenkorta eta Larraskandara

*Arno Guraso* elkarteak Ikastolako haur eta gurasoei zuzendutako bi mendi irteera antolatu ditu datorren hilerako. Lehenegoa azaroak zazpian izango da. Barrenkorta eta Kortaberri mendietara egingo da irteera. Azaroaren 28an, berriz, bigarren mendi irteera izango da eta, hain zuzen ere, Larraskandara egingo da igoera.

### ✓ Aste honetan hasiko da Yoga ikastaroa

Astelehen honetan, hilak 3, emango zaio hasera Mendaroko Emakume Taldeak antolatutako Yoga ikastaroari. Jendea animatu nahiean Gabonak artekoa dohanik izango da. Probatu nahi duen guztiarentzat. Ikastaroa ekaina arte luzatuko da eta saioak astelehen eta asteazkenetan izango dira eguerdiko 2,30etatik 4etara bitartean.

**EIBAR**

OSASUNDEGIA

- Urkizu Pasealekua, 11.  
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).  
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*
- |                           |                          |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia            | 9- Ortodontzia           |
| 2- Kardiologia            | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia                | 11- Pediatria            |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria            |
| 5- Dermatologia           | 13- Radiologia           |
| 6- Ginekologia            | 14- Traumatologia        |
| 7- Laborategia            | 15- Urologia             |
| 8- Barne medizina         |                          |

**CHINA TOWN**

Txinatar jatetxea

- ▶ 2, 3, 4, 5, 6, 8, pertsonentzako menuak
- ▶ Ezkontzak, Despedidak...
- ▶ Elxera eramateko janaria

**Eguneko Menua:  
900 pta**

Ifar Kale, 3 - 70 21 55

EIBAR

●● GURE GAIA ●●

## "Izarraitz bizirik" proiektuak Kilimon bailara suspertzea du helburu

**"Izarraitz bizirik" izeneko plana, Deba Beheko Mendi eta Nekazaritza Elkartearen eskutik sortu zen duela urte batzuk. Asmoa, Lastur eta Kilimon bailarei, nolabait, bultzada bat ematea da, sozialki zein turismoari dagokionean. Horrela, kobazuloen irekitzeari, nekazaturismoaren promozioari eta orokorrean, bi bailaren bultzada sozioekonomikoari ekin zaio.**

**L**astur eta Kilimon bailaretako biztanleen nahiak entzun ondoren, *Debemen* elkarteak "Izarraitz Bizirik" izeneko programa zabal bat eratu zuen. Nekazal garapena lortzeko ahalegin bat baino zerbait gehiago da proiektu hau: izan ere, bi bailaren garapen integrala (nekazaritza, turismoa, zerbitzuak... lortzea du helburu programak. Proiektu pilotu gisa Europar Elkartearen onespina izan du eta beraz, beste leku batzuetan aplikatu beharreko eredu ere bada. Erakundeen onspena jaso eta gero, inbertsioak egiteko txanda heldu zen. Programak 580 milioiko aurrekontua dauka eta lehen fasea urtarrilean hasi eta ekainerako bukatu dute. Epe honetan Lastur eta Kilimon auzoetako 38

baserriren arteko komisio bat sortu da. Elkartea legalizatu eta bilerak egiteko lokal bat eman zaie. Nekazaturismoari dagokionean, aurtun egiteko inbertsioei buruzko txosten bat aurkeztu dute Turismo Ministeritzan eta, ingurugiroaren alorrean ere, burutu beharreko zenbait atal aurreikusi dira.

Kilimon bailaran ez da orain arte inbertsiorik egin baina aurtun, zenbait kobazulo jendeari zabaldu nahi zaizkio. Ekaingo kobazuloetako pinturen erreprodukzioak Kilimoneko kobazuloekin batera promozionatuko dira, guztia proiektu bakar batean bilduz. "Izarraitz Bizirik" martxan dago, eta fruituak laister igarriko dira Lastur eta Kilimon bailaretan.



●● IRITZIA ●●

### *Izarraitz Bizirik*

Azken aldi honetan, Europatik datozen esperientzietatik (Frantzia, Suiza, Austria, Britainia Handia...), nekazaritzan aldaketa garrantzitsu bat nabaritzean da.

Orain dela gutxi arte produktibitatea, hau da, asko produzitzea, izan da helburu nagusia nekazaritza mailan, baina egun, kalitatea eta dibertsifikazioa beharrezkoak ikusten dira, are gehiago Euskal Herrian daukagun esplotazio familiar txikietan, baserrietan.

*Izarraitz Bizirik*-ek, Deba eta Mendaroko zonalde konkretu batean, Lastur eta Kilimongo bailaretan (Izarraitz mendiaren magalean), Europako politika berri honi jarraituz, baserrien, baserri-tarren bizimoduaren hobekuntza bilatzen du. Honetarako baserriaren produkzioaren dibertsifikazioa, ekipamenduak, zerbitzuak... eskaintzea du helburu.


Baina argi geratu behar da proiektu honen gauzarik garrantzitsuena, erakunde publikoen laguntzen gaitetik, *Izarraitz Bizirik* elkartean parte hartzen duten bertako biztanleak direla, Lastur eta Kilimon bailaretakoak.

Asier Albizu  
DEBEMENeko Gerentea

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**L**AU HANKATAN

**Hasier Etxeberria**



# Dianaren diana

**H**erri aldizkari batean idazteak baditu bere koskak. Ohitu samar egonagatik,

musu truk hartutako zama ere bai?

Partziala izateaz akusatu zuten, gainera, Diana. Izango ez da, bada, ahizpa preso eta familia guztia kezkan dagoenean? Zer egin behar du, txokolatea txurroekin eserita lasai jan? Hala ere, gehien kezkatu ninduen, baldar idatzitako esaldi hau da: "...bakarrik argitu BARRENen izpiritu apolitiko eta gure Elgoibarko bizitzari buruzko informazioa emateko sortu zela eta horrela jarraitu behar du, elkarbizitza errazteko, bakoitzak bere iritzia uko egin gabe bizi gaitezen".

betiere hogeitaz aldiz pentsatzen eta erreparatzen dut egindako idatzia, eta sinetsiez zaidazue, ditudan lan guztien artean, gaitzenetakoa gertatzen zaidala BARRENera bidaldutako artikulua. Gutxi edo asko, norberaren herriaren hurbiltasunak, edonori egiten dio kosk bere zalantzen erdian.

Zozoak garela uste al du hori idatzi duenak? Nork ez du nahi hemen elkarbizitza errazagorik? Nolako, ordea? Ardie-na? Nola izan liteke inor apolitiko, nork bere iritzia uko egin gabe? Apolitismoa ezinezkoa da, definizioz, bizirik dagoen edonorentzat. Are ezinezkoago, idazten duenarentzat. Apolitikotasuna, berez, politika mota bat da.


Horregatik asko poztu ninduen Diana Perez de Albenizen ausardiak. Bere ahizpa atxilotu zuteneko gogoetak agertu zituen deblauki. Han ez zen txantxarik. Bere mina eta sentipena erakutsi zituen era gordinean. Nik asko eskertu nuen artikulua hura. Gizakion nolakotasunaz gogoetak egiteko aukera eskaini zidan, eta halako erreflexioak sortzeko gauza den lan bat, eskertzekoa da beti. Giza kondizioa bihurtu zuen artikulua hark pentsagai, beste gauza askoren artean. Hunkiturik geratu nintzen. Zirraturik eta harro, Dianarekin batera idazten dudalako.

Oharkabean nahastu eta akatsa egin zutela pentsatu nahi dut eta "apolitiko" idatzitako lekuan, "plurala edo anitza" esan nahi zutela. BARREN iriki bat nahi dutela sinistu nahi dut, baina beldur naiz, nere artikulua kritiko hau argitaratzeagatik, BARRENen zuzendaritza estutu eta diruak gutxitzen ez ote diren hasiko. Hala gertatzen bada, ni Dianarekin joango naiz, paseatzera. Izan ere, elkarbizitza ez da arazoak izkututuz lortzen. Beste biderik ez dago: nork bere minak eta zalantzak agertu eta horietaz garbi hitzegitea. BARRENek ez badu horretarako izan behar, alferrik dihardut idazten. Eta banoa.

Baina, hara non, hurrengo astean, Elgoibarko EAJ-PNVko zinegotziek sinatutako gutun bat irakurri nuen. Lotsatu egin ninduen idatzi hark. A ze nolako jarrera adierazi zuten, Udalak babesten duen argitalpen batean Dianari parte hartzen uzten diotela esaterakoan. Baina nor direla uste dute jaun horiek? Ez al dakite Dianak eta besteok izugarritzko lanak eta buruhausteak ditugula geure artikulua egiteko? Ez al dira ohartzen orrialde hau idazteak dakarren ohoreaz, bai, baina

**Argitaratzailea**  
Elgoibarko Izarra  
**Laguntzailea**  
Elgoibarko Udala  
**Zuzendaria**  
Alberto Agirreazaldegia  
**Hizkuntza Arduraduna**  
Anjel Ugarteburu  
**Erredakzio kontseilua**  
Iñaki Arrieta, Anton Bergara, Eurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua  
**Kazetaria**  
Ainhoa Lodoso  
**Maketatzailea**  
Maite Rementeria  
**Publizitatea**  
Nekane Etxaniz  
**Administrazioa**  
Josune Fernandez, M. Angeles Ortuoste  
**Kolaboratzaileak**  
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Ina Garagarza, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta  
**Banaketa arduradunak**  
Imanol Larrañaga  
Inaxio Garmendia  
**Inprimategia**  
Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)  
**Tirada:** 3.000 ale  
**Lege gordailua:** SS-1.038/92  
**ISSN:** 1133-021X  
elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak,  
Foru Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



**Mintxetako pistaren erabilera**

Ostegunean, irailaren 30ean arratsalde, gazte koadrila bat, kadeteen entrenamendua ikustera joan ginen. Han geundela pistara sartzeko gogoa sartu zitzaigun. Barruan geundela, koadrilako batzuri, pistari bira bat emateko gogoa sartu zitzairen, eta barrura sarturik, bira bat eman zioten. Bapatean han lan egiten duen neska batek (izena baztertuz) pistatik joan behar ginela esan zigun, inongo motiborik gabe.

Zer dela eta hori?

Denok dakigunez arauak dioen bezala gu gomazko zapatilekin

geunden. Bestalde, egunkarian zioen bezala elgoibartar guztiok erabil dezakegu. Gero Mintxetako irteeran geundela, gizon edadetu batzuk bronka botatzen hasi ziren, neskari lagunduz.

Baina itsusiena zen, gure aurrean pertsona nagusi batzuk korrika hasi zirela pistan.

**HAUEK AL DIRA GAZTEEN LEGEAK?**

**Elgoibarko gazte batzuk**

**Erraminta makinaren sektoretik**

Erraminta Makinaren sektorearen barruan talde eraketa dela eta sortu den egoera aztertzeke, GEMINIS, ETXE-TAR, LADISLAO ARANBURU, LAGUN eta MORKAIKO lantegietako enpresa komiteak eta langileen ordezkariak bildurik, honako erabaki hauek hartu ditugu:

1- Enpresei, prozesu honetarako emango diren pauso guztiez puntualki informatzeko eskatzea.

2- Enpresa komiteen ordezkariak bilera batera dei ditzatela eskatzen diegu proiektua diseinatzeko ari diren "Consul-

ting"ei, bertan, zehaztasun osoz M.E. delako taldearen sorrerari buruzko egoeraren berri emateko.

3- Eusko Jaurlaritzari honako hau eskatzen diogu: langileen ordezkariekin akordio batera iritsi arte, taldea egiteko baimenik eman ez dezala.

4- Dagoen desinformazioa eta ardura adierazteko asmoz, adierazpen hau komunikabideetara bidaltzea erabaki dugu. Halaber, prozesuaren gardentasuna eta argitasuna lortzeko beharrezkoak diren pausuak emango ditugu.

Elgoibarren, 1993.eko urriaren 20an

**Komiteak**

**PESA GRUPO**

**BONOBUSAK eskuragai urriak 1etik aurrera**

- 1.- EIBAR - ELGOIBAR - DONOSTIA (40 bidaiak) .....19.800 pta.
- 2.- EIBAR - BILBO - EIBAR
  - 10 bidaiatako bonoa .....3.500pta.
  - 40 bidaiatako bonoa.....11.000 pta.

**IKASLEENTZAKO ABONOAK**

- 1.- EIBAR - DONOSTIA  
Asteko egun guztietarako eta ordutegi librearekin  
Hiru hilabetetako prezioa.....37.500 pta.

**Informazio gehiago nahi baduzu (943) 11 21 31 - (94) 416 87 77**



**A**ste honetako erretratu **Gloria Mugerzak** lagatakoa da. Lasai! Ez gara ihauterietako erretratuak urrian ateratzen hasi. Karnabaletako erretratu badirudi ere, Gloriak esan digunez 1960. urtearen inguruan DOMUND (Domingo Mundial Misionero) egunean ateratako karrozako partaideak dira erretratuan azaltzen diren gazte-txo hauek.

Karroza Elgoibarko San Bartolome Parrokiako "Acción Católica"koek atera omen zuten.

Ikus dezagun zeintzuk diren erretratukoak:

Goitik behera, ezkerretik eskumara:

1go ilaran: **Alitxu Bilbao, Gloria Mugerza, Jon Arrieta** eta **Jose Antonio Zubiaurre**.

2. ilaran: **Angelita Beloki, Iñaki Mujika, (...)** **Iglesias** eta **Josefina Beloki**.

Lurrean jarrita: **Pake Garzia**.

Goiko aldean ezkutaturik dagoen gizona **Mateo Uria "Olaso"** da.

Makillajearen arduraduna: **Mari Ezenarro**.



Ohartuko zineten erretratuan bi "filipinar" azaltzen direla. Beloki ahizpek ez zuten Mari Ezenaroren esku artistikoaren beharrik izan, "benetako" filipinarrak omen dira, nahiz eta gaur egun Parisen bizi.

Bukatzeko esan, aurten DOMUND eguna urriaren 24ean izango dela.

**DEKORAZIOA**

*Ane*

**PROIEKTUAK  
ERREFORMAK  
ALTZARIAK  
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

**Orbea**

**Kafetegia**

San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

*Eskerrak izpiritu  
Santuari egindako  
mesedeengatik.*

**Alfonso**

# ELGOIBARKO IZARRA

# IDAZ LEHIAKETAK 1993



## VIII. PROSA LEHIAKETA

### Oinarriak:

- 1.- Elgoibartarrek ezezik Elgoibarren ikasten ari den edonork parte har dezake.
- 2.- Hiru **maila** bereziko dira:  
A.- O.H.O.ko 7. eta 8. mailak.  
B.- Ertainetako 1. eta 2. mailak.  
C.- Ertainetako 3. eta 4. mailak.
- 3.- Idazlanen **luzera**:  
A.- 3-6 orrialde bitartean.  
B.- 4-8 orrialde bitartean.  
C.- 5-10 orrialde bitartean.
- 4.- **Gaia**: librea izango da.
- 5.- **Idazteknika**: prosaz izan beharko da.
- 6.- Idazlanak hiruna aiez aurkeztuko dira (hiru kopia), izenburua edo **giltz-lemma** batekin eta egilearen inolako ezaugarririk gabe.  
Kartazal barruan eta sobre itxi batean egilearen izen deiturak, helbidea eta hautatutako giltz-lemma jarriko dira.
- 7.- **Sariak**:  
A.- 1. Txapela eta 10.000 pzta.  
2. 5.000 pzta.  
B.- 1. Txapela eta 30.000 pzta.  
2. 15.000 pzta.  
C.- 1. Txapela eta 40.000 pzta.  
2. 20.000 pzta.
- 8.- Lanak entregatzeko **epea**: Abenduak 10.
- 9.- Epaimahaia **ELGOIBARKO IZARRAK** izendatuko du eta honen erabakia apelaezina izango da.

## XIII. 'ETXEGIÑA' BERTSO-PAPER LEHIAKETA

### Oinarriak:

- 1.- Elgoibartarrek ezezik Elgoibarren ikasten ari den edonork parte hartu dezake.
- 2.- Hiru **maila** bereziko dira:  
A.- O.H.O.ko 5. eta 6. mailak.  
B.- O.H.O.ko 7. eta 8. mailak.  
C.- Ertainak ( 14-18 urte )
- 3.- Bertsoen **luzera**:  
A.- 6 kopla.  
B.- 8 kopla.  
C.- 5 bertso.
- 4.- **Gaia**:  
A eta B mailetan gai librea.  
C maila: '**GUSTOKO TOKIAN ALDAPARIK EZ**'.
- 5.- Idazlanak hiruna aiez aurkeztuko dira (**hiru kopia**), izenburu edo **giltz-lemma** batekin eta egilearen inolako ezaugarririk gabe.  
Kartazal barruan eta sobre itxi batean egilearen izen-deiturak, helbidea eta hautatutako giltz-lemma jarriko dira.
- 6.- **Sariak**:  
A.- 1. Txapela eta 8.000 pzta.  
2. 4.000 pzta.  
B.- 1. Txapela eta 15.000 pzta.  
2. 7.000 pzta.  
C.- 1. Txapela eta 30.000 pzta.  
2. 15.000 pzta.
- 7.- Lanak entregatzeko **epea**: Abenduak 10.
- 8.- Epaimahaia **ELGOIBARKO IZARRAK** izendatuko du eta honen erabakia apelaezina izango da.

### BIENTZAKO OHARRAK:

1. Lanak **ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartera, Ubitarte 4** bidali behar dira.
2. Kartazalean '**ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAK**' jartzeaz gain, '**Prosa Lehiaketa**' edo '**Etxegiña Bertso-Paper Lehiaketa**'n parte hartzeko den zehaztu beharko da. Hau ezezik, zein mailatan parte hartzen den ere jarri beharko da (**A,B edo C**). Baldintza hauek betetzen ez dituzten lanak baztertuak izango dira automatikoki.
3. Sari banaketa eta irabazleen berri ematea, San Anton jaietan egingo den jaialdi berezi batean izango dira.



# Gestio eskola: enpresari gazteen sorleku



AZKUE

➤ Gestio Eskolaren irekiera ekintza ofizialean ateratako argazkia. Lau urte barru lehen promozioa izango da.

Joan den irailean Elgoibarko IMHn dagoen Gestio Eskolako lehen ikasturteari eman ziztaion hasera. Proiektu hau, askorentzat guztiz ezezaguna den enpresa munduan urrats berri bat izango da eta, aurten lehenengo aldiz Gestio Eskolako ikasle direnak, lau urte barru gure herriko edo inguruko enpresa bat gidatzeko prest ikusiko ditugu. Hona hemen enpresari gazteen sorleku berria.

**Gestio** eskolaren jatorria duela bi urte Deba Beheko eskualdean egindako Plangintza Estrategikoa deritzonaren baitan legoke. 400 pertsona baino gehiagoren (tartean politiko, zinegotzi, profesional...) artean burututako plangintza honetan DEBEGESA erakundea edo DEBEGESA osatzen duten zortzi herrietako alkateak funtsezko bultzatzaileak izan dira. Plangintza Estrategiko honetan, eskualdearen egoe-

raren inguruko hausnarketa eta ondorengo diagnostia egin eta gero, Deba bailararen garapen sozioekonomikorako zenbait ekimen eta ekintza egin beharrekoak direla ikusi da. Ekimen hauek esparru ezberdinetan burutu beharrekoak dira gainera: azpiegitura mailan esaterako, Maltzaga-Urbina ardatza, bizitzaren kalitatea indartzeko, ingurugiroarekin, turismoarekin eta aisialdiarekin lotutako proiektuak... Testuinguru honetan sortzen da Gestio Eskola. Hezkuntza edo irakaskuntzari dagokionez, derrigorrezkoa zela pentsatu zuten Plangintza Estrategikoa burutu zutenek, goi mailako ikasketetan "enpresariales" edo "economicas" gisako karrera eskualdean bertan egiteko aukera edukitzea.

Duela bi urte zenbaiten burutan zebilen asmo soila, gaurregun errealitate bihurtu da. ESTE eta EHUKO egoera eta eskaintza ikusi ondoren, Madrid eta Bartzelonako "Escuela de negocios" izenekoak aztertu ondoren eta Alemaniako zenbait adibide aztertu eta kontrastatu eta gero, Gestio Eskolako lehen ikasturteak eman ditu lehen urratsak. Izan ere, pasa den irailaren 15ean hasi zuten lehen ikasturtea 40 ikasleko taldearekin.

### **Elgoibarren ala Eibarren**

Klaseak IMHko ikasgeletan ematen dira baina gerora Eibarren kokatzea litzateke Eskolako zuzen-



→ Ezkerretik hasita, eskolako zuzendaria Jose Mari Ulazia, Jose Inazio Elokoro-Iribe alkatea, DEBEGESAko presidentea Iñaki Arriola eta Dionisio Aranzadi Deustuko erretorea.

daritza taldearen nahia. Hain zuzen, Eibar, bailarako zerbitzuburu eta gune industrialak izaki, honelako eskola bat bertan kokatzea interesgarri iruditzen zaio eskolako zuzendaritzari. Erabakia, ordea, beste faktore baten menpe dago: Eibarrek leku apropos bat noiz eskainiko menpe, alegia.

### **Helburu sozialeko ekimen pribatua**

Deba Beheko Udaletxe guztiez gain (DEBEGESAREN baitan daudenak), beste erakunde batzuk ere hartu dute parte Gestio Eskolaren sorkuntzan: Eusko Jaurlaritzako Industria sailak, Gipuzkoako Aldundiko Ekonomia sailak, Iberdrolak, Eroskik, Tekniker-ek, Kutxa Fundazioak, Lankide Aurrezkiak, Gipuzkoako Bazkondeak, LKS (Kooparatiben Kontsultore Taldea) eta ADEGIK. Eskolaren sorreran erakunde publiko

---

### **Aurrez ikusitako hutsune bat betetzeko eta garapen ekonomikorako tresna izateko sortu da Gestio Eskola.**

---

zein pribatuek hartu dute parte eta, horregatik, ez dago administrazio publikoaren menpe soilik. Legalki edo ofizialki, Gestio Eskola erakunde pribatua da baina ez da inor aberasteko sortu. Helburuz, berriz, publikoa dela esan daiteke, asmo sozial bat betetzeko sortu baita. Aurrez ikusitako hutsune bat betetzeko eta garapen ekonomikorako tresna izateko sortu da Gestio Eskola.

### **1993-94 ikasturtea**

Lehen ikasturte hau irailaren 15ean hasi bazuten ere kurtsoaren aurkezpen ofiziala, joan den hilaren 8an egin zuten. Lehen ikasturte honetan 42 ikasleko gela osatu da. Hauetatik, 23 Deba Behekoak dira, honela banatuta: 8 elgoibartar, 10 eibartar, ermuar bat eta plaentxiar bat. Gai-nontzeko ikasleak Deba

AZKUE

**GESTIO ESKOLA 1993-94 ikasturtea**

- **Ikasturte kopurua:** 4
- **Ikasle kopurua:** 40
- **Ikasgaiak:**
  - Orokorrak: Ekonomia, Sozio-politika, Zuzenbidea, Ingelesa eta Frantsesa (aurrerago Alemaniera), Matematika aplikatuak.
  - Gestio-gintza Teknikak
  - Jokabide arauak
  - Praktiak
- **Matrikula:** 50.000 pezeta
- **Hilerokoa:** 20.000 pezeta (10 hilabete)

Garaikoak eta Donostia aldekoak dira. Ikasle goaren gehiengoak ikasketa ertainak (UBI, REM edo LH) bukatu berri ditu eta ikasle-en batzbesteko adina 18 urtekoa da. Gestio-gintzan oinarritutakoak diren jakintzez gain, ikasleengan dinamismoa, buruzagitza, taldean lan egiteko gaitasuna, besteen potentzialitateak aprobetxatzen jakiteko gaitasuna, espresibidatea, negoziatzeko eta komunikatzeko gaitasuna, arriskuari aurre egiteko indarra eta antzerako beste zenbait balore sortu nahi dira. Metodologia aktibo eta praktikoa erabiliko dute eskolan. Karrerak irauten dituen lau urteetan balore hauek sakonki jorratu dira. Ikasleek praktikak egingo dituzte lehen mailatik eta azken kurtsoan Frantzia praktikak egiteko aukera izango dute. Karrera bukaera gisa proiektu teoriko-praktikoa burutu beharko dute ikasleek.

**Oso zaila da hirugarren edo laugarren pertsona batentzako enplegua sortzea baina bakoitzak bere buruarentzat autoenplegua sortu dezakeela pentsatzen dut.**



**Jose Mari Ulazia**  
Gestio Eskolako Zuzendaria

**Zer nolako profesionalak heziko ditu Gestio Eskolak?**

“Lehenik eta behin Eskolaren helburuak aipatuko nituzke nik. Hiru helburu ditu gure Eskolak. Batetik, karrera berri bat da, guretzat alegia, Euskal Herrian eta Espainian ez baita ematen. Frantzia sei zazpi urte daramate esperientzia horrekin eta gu ere sare frantzesean sartuta gaude. Europa osoan zabaldua dagoen sarea da eta guk, sare honen barrutik karrera berri bat eskainiko dugu: gestio-gintzako teknikak irakatsiko dituen karrera. Zertarako? Gure enpresa eta erakundeek duten zuzendaritza taldeak nolabait errelebuia izan dezan gazte egoki eta ongi prestatuak eskainiz. Bigarrenik, garbi daukagu zuzendaritza lanetan dihardutenei birziklaia edo etengabeko formazioa eskaintzea ezinbestekoa dela. Hau da, zuzendaritza eta gestio-gintza ematen diren teknika

berriak beraiei urreratzea. Eta hirugarrenik, kultura edo giro berri bat sortu nahi dugu enpresari berri eta “enprededoreak” heziz. Ez dago modan enpresari izatea baina gure aberastasuna hortik etorriko zaigu. Enpresari berriak sortzen baditugu, hortik lanpostuak eta garapena etor daitezkeela uste dut. Guztiok izan gaitzke enpresari, oso zaila bada ere hori esatea. Baina hala da. Oso zaila da hirugarren edo laugarren pertsona batentzako enplegua sortzea baina bakoitzak bere buruarentzat autoenplegua sortu dezakeela pentsatzen dut. Gaur egungo gestio-gintzak eskatzen dituen teknikan oso jantziak dauden belaunaldi gazteak prestatu behar ditugu. Baina horrekin batera enpresari bultzatzaile eta ekintzaile berriak sortu behar ditugu. Horretan ahalegindu behar gara.”

# Gaua ala eguna?

**Hasi aurretik azalpen txiki bat eman nahi nuke. Gaueko bizitzari aisialdi eta jai interpretazio bat ematera noa. Eta ziur naiz gauez lan egiten duten guztiak barkatuko nautela.**



**H**iztegi zahar bati begira hasi naiz eta gauaren honako definizio hau aurkitu dut: "konfusioa, iluntasuna, tristezia" eta ezin naiz oso ados egon definizio honekin. Zeren gauez normalki mundu guztiak daki zertara doan (eta gehiago izaten da fusiora konfusiora baino). Iluntasunak jai dauka neoi argien etorrerarekin, eta, azkenik tristezia nabariagoa da goizetan eta areago astelehen goizak badira.

Gaua "valvula de escape" bat da. Nola-bait esateko, érlojuari eta betebharrei lotzen gaituen egunerokotasunetik ihes egiten laguntzen digun deskarga psikologiko bat da.

Izan ere jendea gauez alaiago egoten da, irekiagoa da gau bakoitza desberdina izan daitekeen esperantzaz. "Love story" xamurrenetik hasita, gitarra punteorik hobereak, Pavarotti bera ere farregarri utziko

luketen baritonoak (barka diezadala nire lagun Jose Marik) eta "far west" estilo hobereko burrukak ikus daitezke, eta guzti hori sarrerarik ordaindu gabe (Guassekoa ezik).

Gainera badu kutsu aberasgarri bat. Gauez kronistarik hoberenekin egin dezakezu topo, hasi politika kronistetatik, bihotzekoak, kirole-takoak (eta zer esanik ez Athletic-ekoak badira), humoristak eta baita prestidigitatzaile- ren bat ere. Nola esan... mordo bat ikasten da!

Izan ere gaua logikaz kanpo dago. Kontraesan hutsa da: mordo bat hitzegiten duzu baina ez duzu ezer esaten, nekatuta zaude baina ez zoaz lotara, ez duzu egarririk baina edan egiten duzu, etxera goiz iristea nahi duzu baina ez zara inoiz ailegatzen. Hori da bere enkantua.

Gabon.

**Iñaki Alvarez Estarta**



**Lehendabizi esan nahi nuke, bai bata eta bestea egokiak direla gauza desberdinak egiteko. Baina bien artean bat aukeratzekotan, egunarekin geratzen naiz, arrazoi bategatik: aukera gehiago ematen digulako denetarik egiteko.**

**E**gunak gauak baino ordu gehiago ditue- nez, gure denbora librea gehiago aprobetxatze- ko aukera dugu. Gizakia beti baliatu da hobeto eta gehi- go egunaz, gaua lotarako edota atsedenerako utzita. Honek ez du esan nahi noski, gauez ezin direnik gauzak egin.

Inguru zoragarri eta bitxi batean bizi garenez, bai paisaia eta kokalekuz, itsaso eta mendiz inguratuak, gure denbora librea ondo pasatze- ko aukera bereziak ematen dizkigute. Bai paseatu, irte- naldi laburrak edo astebuka- era osokoak, turistikoak edo soilik denborapasa, kirolak egin edo ikusi, historiak gure lurralde desberdinetan utzi dituen urratsak miresteko, natura berezi honek eskain- tzen dizkigun, lore, zuhaitz, animalia eta abarrez gozatze- ko. Guzti hauek gehienetan gure lagunekin, senideekin edota lankide edo ikasketeta- ko ezagunarekin egiten ditu- gun gauzak dira, nahiz eta bakarrik egiteko ere egokiak diren.

Aipatu ditudan gauzak alde batera utzita, gure herriek eskaintzen dizkigute ekintza kulturalak bai feste- tan, ferietan, ikuskizun ezberdinak, galeriak, argazki raliak e.a. Honez aparte,

denok nahiko nekatuta bukatzen dugu astean zehar egindako lanagatik, eta badaude atsedendialdiak har- tzeko egoki prestatuta dau- den tokiak. Aktibitate- rik egi- ten ez badugu ere, egokia iruditzen zait siestatxo bat egitea belar gainean etzanda, haizeak aurpegia laztanduaz, kontutan edukita astean zehar herri zuloan sartuta, gure lantoki, eskola, eta kaleko ke eta hautsak iren- ten egoten garela gehienok.

Onartu behar dut gauak eskaintzen digula esandako batzuk egiteko aukera, baina ez denak, eta ukatu ezina da, hobe dela neoziko argipean egon baino, eguzkiaren inda- rra gure gorputzean senti- tzea. Gaur egun gauak parrandarako eta gaupasa egiteko erabiltzen ditugu gazte gehienok eta ohitura bihurtu dugu gauez ibiltzea, kontutan hartu gabe egunez ere parrandak egin leizkela. Onartu behar dut, neri, zuoi bezala pilo bat gustatzen zai- dala gauez ibiltzea, eta noi- zean behin goiz argiarekin etxera joatea. Gauak ere badu bere xarma. Batak ez du bestea kendu behar. Baina aukera edukita eguneko ibi- laldiak nahiago ditut, eta sasoiak laguntzen badu, hor dago gaua nahi dabanantzat.

**Amaia Zabaleta**


# Gaua ala eguna?




**David Sierra**  
20 urte, ostalaritza  
Nik gaua. Gauez nere kolegekin gehiago egoten naiz. Goizez lan egiten dut eta arratsaldean eta gauez kalean ibili.




**Maite Garzia**  
32 urte, etxekoandrea  
Ezkondu aurretik gauez ibili izan naiz egunez baino gehiago. Baina orain ezer ez, umeekin ez gara irtetzen. Baina asko gustatzen zait gauez ibiltzea.



**Ana Zabala**  
34 urte, etxekoandrea  
Ibiltzeko, gaua. Orain eguna, baina leno gaua. Ume txikixekin gaueko asuntua ziharo galduta daukagu. Egunez ibili behar.



**Sheila Rozas**  
13 urte, ikaslea  
Eguna nahiago dut. Hobeto pasatzen dut nere adinarekin oraindik ez didatela-ko oso berandu arte lagatzen. Egunez gehiago disfrutatzen dut.



**Jesus Vicente La Mata**  
26 urte, brigadako langilea  
Gaua nahiago dut. Gehiago gustatzen zait, mobida gehiago dago. Eguna lanerako eta lo egiteko da eta gaua juergarako.



**Juan Carlos Nuñez**  
27 urte, transportista  
Segun zertarako. Nik eguna nahiago dut. Aste-bukaeratan mendira joatea gustatzen zait. Juergak, guztiek bezala, gauetan egiten ditut.

**EROSO BEROGAILUEN INSTALAKUNTZA**  
Jose Elozegi, 105  
20 016 DONOSTI

● GAS NATURALA ●

**ESKEINTZA BEREZIA**  
Instala ezazu ORAIN berogailua eta koloretako TELEBISTA BAT oparituko dizugu!  
14 " Samsung markakoa eta distantziarako mandoarekin

Eskeintza hau 1993ko abenduak 31 arte izango da  
Dei egiguzu **(943) 39 11 05** telefonora

CAFE  
PZFF  
TEATRO

**Pub PELOUSE**  
San Frantzisko, 43  
Tel: 74 20 40

**GARAY**

HARATEGIA  
URDAITEGIA  
San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

## Esmalte eta hirudimentsiotako koadroen ikastaroa

Elgoibarko PNV-EAJ alderdiak hotzean egindako esmalte ikastaroa eta hiru dimentsiotako koadroei buruzko dohainiko ikastaroa antolatatu du. Ikastaroa azaroan zehar izango da Zaharren Biltokiko lokalean eta klaseak arratsaldeko 5etan hasi eta 7etan bukatuko dira. Izena emateko epea urriaren 25etik 29ra bitartean izango da, goizeko 10etatik 12etara. Ikastaroak adin guztientzat izango dira.

## Organuak emateko kanpaina

Giltzurruneko gaixoen elkarte, ALCER, organuak emateko beharrari buruzko kanpaina burutzen ari da. Hori dela eta, larunbat honetan, hilak 23, mahai informatiboak ezarriko dira gure herrian organuen donazioak duen garrantzi sozialaz sentsibilizatzeko. Gogoratu, Osasun Zentruetan hildako pertsonen %1ak bakarrik betetzen dituela organuak emateko baldintza egokiak. Donazio batek 8 gaisoren bizitza alda dezake bihotza, gibela, bi giltzurrun, birrikak, pankrea eta bi korneak emanaz gero.

## Soziolinguistika ikastaroa martxan

**Elgoibarko** Izarra Elkartek antolatutako bost saiotoako soziolinguistika ikastaroari, aurreko astean (hilak 14 eta 16) eman zitzaion hasera.

Elkartekoek esan digutenez, lehenengo saiora 60 lagun azaldu ziren eta bai antolatzaileak eta bai ikastarokideak oso gustora gelditu omen ziren.

Lehenengo saioan Jose Mari Sanchez Carrión "Txepetx"en teoriaren hasierako formulazio eta Euskal Herrian zehar izaten ari den zabalkunde ikusi zuten. Ondoren, teoria honen hirukoiztasuna landu zuten, hizkuntz arazoei buruz hitz egiterako-

an kontutan izan behar diren hiru elementuak azalduz: hiztuna, hizkuntz komunitatea eta hizkuntza.

Ikastaroaren zutabeak hiru elementu hauek izango direnez, hiztuna lantzeari ekin zion ikastaroaren arduradun eta emale den Imanol Larrañagak.

Hiztunari buruz hitz egiterakoan hiru axiomak, beldurrak, hizkuntzabat nola ikasten den eta hizkuntz tipologiak landu zituen besteak beste.

Elgoibarko Izarratik esan digutenez, bigarren saioa urriaren 21ean eta 23an izango da eta nahi duten guztiek atek zabalik izango dituzte.



**EIBAR**

**OSASUNDEGIA**

- |                           |                          |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia            | 9- Ortodontzia           |
| 2- Kardiologia            | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia                | 11- Pediatria            |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria            |
| 5- Dermatologia           | 13- Radiologia           |
| 6- Ginekologia            | 14- Traumatologia        |
| 7- Laborategia            | 15- Urologia             |
| 8- Barne medizina         |                          |

Urkizu Pasealekua, 11.  
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).  
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

*Arrieta*  
*modak*

San Bartolome 18  
☎ 74 08 49

**Fotero**  
**OKINDEGIA**  
**OPILEDGIA**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35



## Zine emanaldiak udaletxeko pleno aretoan hasiko dira

**Ongarri** Zine Klub Taldea eta Udaleko Kultura batzordearen arteko akordioari esker, zine proiektzioak astebukaera batez gutxienez jarraituko du Udaleko Biltzar Aretoan. Aire Libreko Zinea bukatu eta gero, Ongarrik proiektzioekin jarraitzea erabakai zuen eta mini-areto bat jartzea herriko lokalen batean. Kiroldegiko lokala aztertu eta gero, aukera hori baztertu, eta Udal Biltzar Aretoan zine emanaldiak egiteko ideia sortu zen. Urriaren 4ean, Kultura Batzordeak Ongarriren proposamena onartu zuen. Momentuz, datorren larunbatean, hilak 30, emanaldi bat ematea nahi du Ongarrik arratsaldeko 7,30etan eta, datorren igandean, hilak 31, bi emanaldi, bat 5,30etan, eta bestea, 7,30etan. Ideiak harrera ona izango balu, emanaldiak Herriko Antzokiko obrak bukatu arte luzatuko dira. Emanaldi bakoitzean ikusleko kopurua mugatua izango da (150-180 ikusle bitartean) eta oraindik erabaki gabe badago ere, sarrera 300 pezeta ingurukoa izango da guztien-

tzat. Edariak, janaria eta tabakoa aretoan sartzeari debekatuko da eta emanaldia hasi eta gero ezingo da aretoan sartu. Honetaz gain, Ongarrik, Herriko Antzokiko berrikuntzen ondoren, zine emanaldien zuzendaritza bereganatzea eskatu dio Udalarari. Honela, hainbeste urtetan herritarrek galdu dugun zinera joateko ohitura berreskuratu nahi du Ongarrik.

### Aire libreko zinea

Ongarri Zine Klub taldeak 18 pelikula eskaini ditu aurtengo udan Aire Libreko Zine emanaldiaren barruan. Plaza handiko zine saioak harrera ona eduki duen arren, eguraldi txarra dela eta, zenbaitetan, ikuslekoa ez da beste batzutan bezain handia izan. Aire



Libreko Zineak lau urte daramatza martxan eta ideia Capitol zine zaharretan aurkitutako 40 urte dituen proiektore bat zela eta sortu zen. Proiektorea konpondu, Capitoleko pantaila zaharra hartu eta diru arazo handiekin, Aire Libreko Zinea ematen hasi zen Ongarri Zine taldea Plaza handian. Harrez geroztik 50 pelikula eman dituzte. Datorren urterako berrikuntzak egiteko asmoa dute, soinuari dagokionean batez ere.

## Gustavo Barrenetxea Sevillako Orkestra Sinfonikora joango da

**Gustavo** Barrenetxea, 22 urteko gazte elgoibartarra, Sevillako orkestra Sinfonikora joango da tronpa jotzera. Orkestako plaza ateratzeko azterketa bat gainditu behar izan du Gustavok. EEBBetako, Alemaniako, Ingalaterrako eta Valentziako musikariek lehiatu ondoren, 23 pertsonen artean Gustavo eta estatubatuar bat aukeratu zituzten.

Gustavok tronpa ikasketak burutu ditu eta Sevillako Orkestra Sinfonikoko plaza atera aurretik, Iruñako "Pablo Sarasate" Kamara Orkestan aritu da jotzen.



## Larrialdietarako Asistentzia Zerbitzua

Deba bailarako biztanleen premiazko deiak Donostiatik koordinatuko dira urriaren 18tik aurrera, 46 11 11 telefono berrira deituz. Zerbitzu honen ordutegia arratsaldeko 5etatik 9etara bitartean izango da lanegunetan, larunbatak barne, eta jaiegunetan 24 orduz. Ordutegi honen barruan edozein motatako premiazko asistentzia behar izanez gero, Elgoibarko anbulategira jo edo 46 11 11 telefonora deitu.

## Nitxoan hustuketa

1983. urtean hildakoen nitxoak hustutzeko asmoa du Udalak, Olaso-ko nitxoak 10 urtez egon bait daitezke gehienez okupatuta. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaletxeko bulegoetara jo.

# "Elgoibarren telebista... Zergatik ez?"

**Azken egunotako kontua da eibartarrek telebista lokal bat sortzeko asmoa daukatela. Badirudi "boom" antzeko batek eztanda egin duela. Aintzindaria Eskoriatza izan zen eta Zarautzek ere badu telebista propiorik, bi gainera.**

**Aste honetarako gure protagonista Luziano Arregi da, 24 urte dituen elgoibartarra. Andoingo "Zine eta Bideo" eskolan "Ikus-entzute"ko ikasketak egin zituen. Bi urtetik hona Arrasate Telebistan dago lanean. Hara bere esperientzia.**

**- Zertarako sortu zen ATB (Arrasate Telebista)?**

- Helburu bikoitza dauka, herri mailan gertatzen den guztia isladatzea, albisteak, informazioa... guzti hori herritarrek egin herritarrentzat, eta euskara hutsez ematea, hizkuntza hedatu asmoz. Honela, AEDren eskutik 1990eko otsailaren 13an, asteartea, ATB jaio zen.


**- Noiz eta nola hasi zinen bertan kamara lanean?**

- Orain dela pare bat urte. Deialdi ireki bat zegoela jakin genuen eta probetara aurkeztu ginen: kamararekin ibili, programa bat errealizatu, ahotsa sartu, editaje maila neurtzeko azterketa bat ere egin genuen eta... gaur arte.

**- Zein da eskeintzen duzuen programazioa?**

- Edozein telebistatan ikus daitekeena, baina herri mailara egokitua. Garrantzi gehien informatiboak ematen zaie, sakonena dira. Bestalde, kirol saioak, lehiaketak, mahaingurua eta tertuliak ere badaude. Programa batetan Euskal Herriko pertsonaia ezagunei egiten zaie elkarrizketa: Argiñano, Txaro Arteaga, Fermin Muguruza...

**- Ba al da ezberdintasunik, lan egiteko orduan, ETB eta ATBren artean?**



**"Kamarak ez du engainatzen, gauzak diren bezala erakusten ditu".**

- Bai, zentzu guztietan. ATBn askoz jende gutxiago dago lanean eta honek bi aukera ematen ditu, lagun talde majoa sortzea eta norberak egiten duen produktua gehiago kontrolatzea. Nik uste, telebista lokaletan gehiago ikasten dela.

**- Esaiguzu zein den zure lana.**

- Kamarak izateaz gain kazetari lana ere egiten dugu batzutan, elkarrizketak, kale inkestak... hori bai, beti kamara atzean. Bestalde programak montatzen ditugu, editatu... denetik piskabat.

**- Nola dago antolatuta lan-taldea?**

- Kontratuarekin lau pertsona gaude. "Arrasate Press" astekarikoak ere hor daude eta kolaboratzaile sare handi bat dago. Programen aurkezleak kolaboratzaileak dira eta beraiek antolatzen dute saio guztia.

**- Herri telebista beste medio inportanteagoetara salto egiteko bidea izaten da?**

- Badago jendea sekula ETBra joango ez dela esaten duena. Dena dela pertsonaren arabera zerbait da. Dударik gabe tranpolin bat da,

asko ikasten duzu eta esperientzia handia jasotzen. Jon Anduezaren kasuan 2 urtez ATBn aritu ondoren aurrean hasi da ETBn lehiaketa bat aurkezten.

**- Zer da "telegenia" deritzona?**

- Kamara azken finean zulo beltz bat da eta trukoa zulo horrekin ondo konpontzea da. Norberak berez daukan zerbait da baina esperientziak ere asko irakasten du.

**- Zeintzuk dira zure asmoak gerora?**

- Argi daukat ATBkoa laister amaituko zaidala. Lagunekin mila proiektu eta ilusio daukat pentsatuak; geu elkartu, proiektu bat gauzatu eta nonbait aurkeztu. Gaur egun ideia garbi bat duenak eta hori ondo landuta behar den jendeari aurkeztuz, ETBn programa bat egitea lor dezake. Zaila da, baina ez ezinezkoa.


**- Noizko Elgoibarko Telebista?**

- Askotan galdetu diot hori nere buruari. Zaila da, oso zaila. Dirulaguntza fua behar da eta kolaboratzaile sare oso handia. Baina... zergatik ez?. "Barren" ere hor dago, nork esaten du hemendik urte batzuetara ez dela herri mailako telebistatik egongo?

**Jasone Osoro**

**Luis Zaldua**

*Iturgina*



- Non ikasi zenuen ogibidea?  
-Zumarragan.
- Zenbat urte daramazu honetan? -30 urte.
- Zergatik aukeratu nuen lanbide hau? -Ez dago arrazoi finko bat. 16 urte nituela aitaren lagun batekin sartu nintzen eta bertan ikasi nuen.
- Txikitan zenuen ametsik desiratuena? -Autobus gidari izatea.
- Gaztaroa ala zahartzaroa? -Zahartzaroa.
- Begi argi ala ilunak? -Argiak.
- Zerk pozten zaitu? -Osasun on batez gozatzeak.
- Denbora librean zer duzu gustokoen? -Mendira joatea.
- Gaua ala eguna? -Eguna.
- Lanerako tresnarik egokiena? -Ordenagailu bat beharbada.
- Bidaia bat egitekotan nora? -Italiara.
- Daukazun bertuterik onena? -Hori besteek esan beharko dute.
- Nor edo zein izan nahi zenuke? -Alain Prost.
- Dantzarako musikarik egokiena? -Ez dut askotan dantzatzen, baina zerbait aukeratzekotan, rock-a.
- Zerk haserraten zaitu gehien? -Gizakien arteko harreman txarrak, haserreak.
- Asteko egun bat? -Larunbata.
- Puntuala al zara? -Ez.
- Lana ondo bukatu edo erdi-purdi utzi? -Dударik gabe, ondo bukatu.
- Galtzerdi luzeak ala motzak? -Nahiago ditut motzak.
- Zerbaitetaz damutzen al zara? -Ez, ez naiz ezertaz damutzen.

Isabel Ansola

**BERTSOTAN**

**GESTIO ESKOLA**

**Doinua:** Proportzio bat

Frantzesen bidez ekarri dute momentuz Elgoibarrera enpresa gizon konpetenteak enpresentzako sortzera. IMH eskolan aurten eman diote hasera gazte mordoska batek izan du horretarako aukera berrogeitamar neska eta mutil dira gutxigorabera.

Aitzol Arriola



**A R R A T S**  
*Pub*

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58



## Tenis pistaren erabiltzaileei oharra

Udal tenis pista alokatzen dutenek, Mintxetako aldageletan dutxa hartu ahal izango dute. Horretarako nahikoa izango da tenis pistaren alogerako tiketa Mintxetan aurkeztea. Tenis pista alokatzeko 200 pezeta ordaindu beharko dute gazteek, eta 400 helduek. Orain arte, arrakasta ezin hobea izan du tenisak eta normalean alogera ordu guztiak betetzen dira. Neguko ordutegia arratsaldeko 6etatik iluntzeko 10etara bitartean izango da eta alogerak egiteko telefonoz deitu 74 21 58 zenbakira edo Kultur Etxeko kirol zerbitzura jo (Nafarroa Plaza).

## Toloñora mendi irteera

Morkaiko Mendizale Elkarteak Errioxako Toloño mendira egun osoko irteera antolatu du datorren azaroak 7rako. Toloño, Araba eta Errioxako mugan dago eta 1263 metrotako altuera dauka. Irteera goizeko 8etan izango da Plaza handian. Bazkideek 800 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, berriz, 1000 pezeta.

Bestalde, urteko kuota ordaindu ez duten bazkideak lokaletik pasa daitezke kuota ordaintzera. Era berean, datorren urterako, 1994rako, federatu karneta egin nahi ez dutenek Errosario kaleko lokaletik pasa beharko dute baja ematera.




Daniel Rino:

## "Atletismo eskola eta gero korrikalariak ez dute nora joanik"

**-Futbolista izanda, nolatan zabilta orain atletismoan?** -Futbola laga eta gero, Mendaron umeei gimnasia irakasten jardun nuen. Gero, umeak falta zirela eta, lanik gabe geratu nintzen. Orain dela hiru, Ego-Tokikoek deitu ninduten eta aurten laugarren urtea egingo dut atletismo entrenatzaile gisa.

**-Ego-Toki eta atletismo eskola gauza bera al dira?** -Bai eta ez. Lehendabiziko ideia eskola "kantara" izatea zen baina gero, Ego-Toki, 20 bat atletarekin geratu da eta eskolatik atera diren korrikalariak 14 urte betetzerakoan ez dute nora jo eduki. Orain, 16 urte arte egon daitezke eskolarteko jokueetan baina 16 urtetik aurrera ez dago ezer.

**-Zergatik Elgoibarren ez dago aurrera egiterik?** -Ni, adibidez, bakarrik nago honetan. Guraso batzuen laguntza daukat baina seme-alabak atletismoa lagatzen duenean, gurasoen laguntza bukatu egiten da. Ego-Tokikoei ere antzeko zerbait gertatu zaiela uste dut. Orain, 40 bat korrikalari dituzte baina horiek erretiratzeko direnean ez dakit zer gertatuko den klubarekin. Ez dakit zerbait gehiago egin daitekeen.



**-Badirudi iparra falta zaiola Elgoibarko atletismoari.** -Bai, ez dakigu norantz jo. Honek aurrera egiten du diru aldetik arazorik ez dagoelako, bakoitzak bere gastuak poltsikotik ordaintzen baititu. Klub bat sortzekotan ibili ginen baina uste baino konplikatuagoa omen da. Udalarekin bilera bat egin genuen baina ez zen ezer atera.

**-Zer nolako emaitzak izan dituzue atletismo eskolan?** -Nahiko onak. Bigarren urtean hiru korrikalari Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketan izan ziren. Idoia Oiarzabal adibidez, Gipuzkoako bigarren geratu zen eta beste mutiko bat, Gipuzkoako laugarren eta Euskadiko zazpigarren geratu zen. Eredu edo erreferentzia bat falta zaiela uste dut.

● Adina: 31.

- Futbola ala atletismoa? Futbola.
- Jateko gustokoena? Paella.
- Gustatu zaizun pelikula bat? Abyss.
- Kirolik? Futbitoa.

**Lizzy**  
 Errosario, 25 - ☎ 74 23 02  
**GAZTEENTZAKO MODA**

**ARMUETA**  
 Baserriko haragietan berezia  
  
**Harategi Urdaitegia**  
 San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

**PUBLIZITATEA**  
**PUBLIZITATEA**  
**PUBLIZITATEA**  
**74 41 12**

# Udal atletismo eskolan parte hartzeko deialdia

Ikasturte berriarekin batera kirol eskola guztiek urte berriari ekin diote. Udal atletismo eskolak badaramatza zenbait urte OHoko 4. eta 8. mailako haurrak entrenatzen, baina azken urteotan izugarri jeitsi da eskolan apuntatu diren haurren kopurua. Hori dela eta, deialdi bat zabaldu da datorren astelehenerako, hilak 25.



↳ Mintxetara hurbiltzeko deialdia luzatu zaie OHoko haurrei.

## Atletismoarekiko

zaletasun kaxkarra ikusita, Udal Kirol Teknikaria den Ramon Mujika eta atletismo eskolako ardura-dun den Daniel Rino, kirol hau 10 eta 14 urte bitarteko haurrengan bultzatu nahian dabilta. Izan ere, Mintxetako pistak atletismoa egiteko eskaintzen duen aukera ezin hobea aprobeixatu beharra dagoela ikusten dute arduradunek. Mintxetako atletismo pistaz gain, armailen azpian eraikiko diren instalazioek haurren entrenamenduak egiteko azpiegitura aproposa eskainiko dute. Ego-Tokiko korrikalari federatuek aparte, OHoko 4. eta 8. mailako haurrek atletismoa egiteko aukera dute Udal Atletismo eskolari esker. Duela hiru edo lau urte 50 inguru haur aritzen ziren eskolan eta gaur egun, berriz, dozena bat

inguru baino ez dira.

Atletismoarekiko zaletasuna bultzatu nahian, beraz, datorren astelehenean, hilak 25, arratsaldeko 7etan, Mintxetara hurbil daitezten gonbidatu nahi dituzte OHoko 4. eta 8. mailako haurrak. Entrenamenduak astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira eta aldage-lak erabiliko dituztenez, dutxa dohainik izango dute. Txapelketak daudenean, atletismo eskolako Daniel Rino eta gurasoak arduratzen dira haurrak kanpora eramateaz, eta entrenamenduak Rinok gainbegiratuko ditu zenbait gazte-ren laguntzaz.

Ildo beretik, atletismoa haurrengan bultzatu nahian, Udalak, eskolarteko jokuen barruan Elgoibar mailako atletismo txapelketak antolatuko ditu Mintxetako pistan.

## EGUTEGIA

### KROSA

#### Alebin eta benjaminak

- ✓ Azaroak 21: Irun
- ✓ Abenduak 12: Deba
- ✓ Urterrilak 23: Antzuola
- ✓ Otsailak 20:

Gipuzkoako txapelketa (Irun)

- ✓ Martxoak 20: Euskadiko txapelketa (Zarautz)

### PISTA

#### Txapelketa hasera azaroak 13



*Eskulanean saiatzen gara*

*Pastelak*

*Tartak*

*Izozkiak*

*Bonboiak*

**GOZOTEGIA**

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45



**MEKANOSA**

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Errosario 30 tel: 74 02 84 Elgoibar

# Itxaropena abesbatza: kantuan jo ta ke

Duela urtebete, Itxaropena abesbatza sortu zen. Garai hartan bazen Elgoibarren kantatu nahi zuen jende talde bat. Talde honek beharrezkoa zuen zuzendaria, eta zuzendariak beharrezkoa zuen abesbatza. Beraz, bi hauen elkarlanetik sortu zen Itxaropena abesbatza.



AZKUE

Itxaropena abesbatzaren arazoetariko bat, jende faltarena da.

**Korua** sortu eta gero, izen bat jarri beharrean aurkitu ziren. Eskuartearen makina bat izen erabili eta gero, botazioz koruari "Itxaropena" abesbatza deitzea erabaki zuten.

Kantariei dagokionez, korua lau "kuerda" edo ahots taldeetan banatua dago. Bi kuerda, sopranoak eta kontraltoak, emakumez osaturik daude, eta beste biak, aldiz, tenoreak eta baxuak, gizonez. Sopranoen taldea hamar emakumek osatzen dute, eta kontraltuena, berriz, sei. Gizonezkoek dago-kionez, bestalde, bost tenore eta bot baxu daude. Korua guztira 26 kidek

osatzen dute.

Itxaropena abesbatzaren gauza deigarrietariko bat daukan zuzendari gaztea da. Nerea Ugarte azpeitiarra da eta 18 urte baino ez ditu. Astean birritan elkartzen dira entsaiatzeko, astearte iluntze eta larunbat goizetan, hain zuzen ere. Entsauak Kultur Etxeko ganbaran egiten dituzte.

Itxaropena abesbatzaren erreperitorioa zabala da benetan. Errenazimenduko musika, XVII-XVIII. mendekoa, musika klasikoa eta modernoa kantatzen dute. Oraingoz ezinezkoa bada ere, hemendik pare bat

urtetara denetik kantatzea espero dute.


Urtean zehar, badituzte zenbait kontzertu edo ekitaldi finko. Urtean bi kontzertu ematen dituzte, Gipuzkoako koruekin interkanbioa eginez. Abenduaren 31an ere Elgoibarren beste kontzertu bat ematen dute. Honetaz gain, suertatzen zaizkien beste konpromezuei aurre egiten saiatzen dira.

Itxaropena abesbatzaren arazoetariko bat, jende faltarena da. Beharrik nabarmenena tenoreei dagokiena da. Dena dela, gazteen aldetik oso erantzun ona izan dute. Duela


gutxi sei gazte berri hasi dira koruan abesten, eta, alde horretatik, oso gustura daude Elgoibarko gazteek eman duten laguntzagatik. Aurrerantzean ere jendearen erantzuna antzerakoa izango dela espero dute, gehienbat mutilen aldetik.

## FITXA TEKNIKOA

**Sorrera urtea:** 1992  
**Kide kopurua:** 26  
**Zuzendaria:**  
 Nerea Ugarte  
**Aktuazio kopurua urteko:** 4-5  
**Entsaiu kopurua asteko:** 2  
**Lokala:** Kultur Etxea

 **Salvador Celaya**  
 ITURGINTZA  
 BILTEGI ETA BAINUGINTZA  
 BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK  
 Errosario 22. Tel: 74 04 94

 **INTERIORES**  
 - SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK  
 - ATE TOLESGARRIAK  
 - BARRUKO ARMAIRUAK  
 - DEKORAZIO GAIK  
 Tel: 74 40 55 - 74 40 19.  
 Errosario 15 Behea.

**PUB**  
  
**elgoibar**

# Glas Control: isolamendurako metodu iraultzailea

## ● Zer da Glas Control? Noiz sortu zen?

-Duela zortzi urte t'erdia sortu zen Glas Control Elgoibarren. Orain arte hemen inguruan jorratu gabe zegoen isolamenduaren arlo batean jarduteko asmoarekin sortu zen. Inolako obrarik gabe, beira arrunta, beira isolatzaile bihurtzen dugu. Geroago, produktu berriak gureganatzen joan gara: pinturak, lakak, kristalean pegatzeko laminak..., eta isolamenduaren atal berriak landu ditugu: sabaiko leihoen kasuan esaterako, tenperatua jeistea lortu dugu argi kopurua mantenduz. Leiho atzean, egonda sortzen den kiskaldura efektua arindu dezakegu edota kristal bat ispilu bihurtu. Eskaparatean jartzen diren kortina zatarrak ordez dekoloreazioa ebitatzen duten laminak jartzen ditugu.

Duela hiru urte Frantziatik ekarritako burlete inoxidableekin hasi ginen

lanean. Produktu iraultzailea izan da eta ia 60 urte daramatza European. Sueziarrek asmatu zuten produktua da eta isolamendu mailan nahiko atzeratuta gaudela esango nuke nik. Isolatzeke gauza asko egon ohi dira etxeetan: pertsianen arteko zuloak, ate azpiko eta leihoetako zirrikituak.

## ● Zertan datza burleteen sistema?

-Glaser deritzon sistemarekin ate, pertsiana edo leihoa batek eduki ditzakeen bitarte guztiak konpon ditzakegu. Gure produktuaren oinarria burlete inoxidablea da eta berari esker berotasuna leihoetako zirrikituetatik ez joatea lortzen dugu. Estetikoki, gainera, oso diskretua da; ez da ez kanpotik ez barrutik ikusten.

## ● Zein abantaila ditu burleteak?

-Abantaila nagusiak daukan sinpletasuna eta prezio merkea dira. Bai instalazioa, bai produktua- ren eraketa bera oso sin-



pleak dira, baina erabiltzen dugun altzairua teknologikoki oso sofistikatu da. Austrian egiten da, Frantzia lantzen da eta hemen jartzen dugu. Burlete inoxidablea leihoaren edo atearen perimetroan zehar jartzen da. Egurrezko leihoetara egokitzen da hobetoen baina burdinezko eta aluminiozko leihoetan ere jartzen dugu. Sistema honen bidez kanpoko haizea, kutsadura, usaina, polena eta zarata ez zaizkigu etxe barrura sartuko. Produktua jarri aurretik eta jarri ondoren 5,8 gradutako diferentzia neurtu izan dugu. Normalean 4 eta 6 gradu bitarteko igotze izaten da.

## ● Zuen kasuan krisiak izan du eraginik?

-Noski, guztiei bezala. Gure kasuan nahiko ondo ari gara jasaten produktuak izugarritzko arrakasta izan duelako. Orain publizitatea egiten gabiltza eta egunero bizpahiru telefono dei ari gara jasotzen. Hiru urte barru publizitate beharrik ez duela izango

pentsa-tzen dugu. Produktua ezaguna izango da ordurako jendearen artean.

Egurra egoera onean badago, zirrikituak estaltzen ditugu, baina egurra sitsak janda badago ez dago ezer egiterik.

Krisi garaian gaudenez, jendea zera gomendatuko nioke: gastu eta obretan sartu ordez sistema hau aukera dezala. Leihoak aldatzea baino 5 edo 10 aldiz merkeago atera dakioko. Gainera, gasa instalatzen ari garen garai honetan, aurretik zirrikituak ondo estaltzea gomendatuko nuke nik. Alferrik berogailua jartzea, leihoetan zirrikituak badaude.

## ● Zer nolako garrantzia du produktuak?

-Iraupenari dagokionez bizitza guztia iraun dezake baina, guk, komertzialki, hamar urtetako garrantzia eskaintzen dugu. Badaude oso kontentu gelditu diren bezeroak eta beraien etxetan egindako lana erakusteko prest daudenak.



L  
E  
H  
I  
A  
K  
E  
T  
A


Etenaldia eta gero hemen gatoz berriz ere lehiaketarekin. Aurreko lehiaketetan bezalaxe astero galdera errepikatuko dugu eta hilaren bukaeran **SAMSUNG MIKROONDAS LABE BAT** zozketatuko dugu erantzun zuzena **BARRE**Nera ekartzen edo bidaltzen duzuenon artean.

**AZAROKO GALDERA:**

Elgoibarko elkarte ezagun batek bere 50. urteurrena ospatzen du aurten.

Ba al dakizu zein elkarteri buruz ari garen?

**ARTEGI**



**Azaroko SARIA**  
**SAMSUNG**  
**MIKROONDAS LABE BAT**



ERANTZUNA.....

IZENA.....

ABIZENAK.....

HELBIDEA.....TFNOA.....

**BIDALI ERANTZUNAK: elgoiBARREN. Nafarroa enparantza 2 . Elgoibar.**



# Jose Ramon Elorza elgoibartarrak

## "Gure Artea" lehiaketako lehen saria jaso du

Jose Ramon Elorzak, 36 urteko margolari elgoibartarrak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolaturiko Gure Artea lehiaketako pintura saileko lehen saria irabazi du. Elorzak bi milioi pezeta jasoko ditu "Uraren arnasa" izeneko margoagatik. Jose Ramonekin hizketaldi bat izan dugu jasotako sariari eta bere lanari buruz zertxobait gehiago jakiteko, berari gustokoen zaion tokian, Altzolan.

**-Sari garrantzitsua. Pozik?**

-Bai, sari polita da. Ezin ukatu dirua polita ez denik. Dirua ondo dago, baina sari metalikoa bezain garrantzitsua dela uste dut nik ematen dizun oihartzuna eta aurrera jarraitzeko bultzakada morala. Lana egiten duzun heinean indartu egiten zaitu honek. Zentzu horretan da garrantzitsua.

**-Jasotzen duzun lehen saria al da honoko hau?**

-Gaztetan, kalean egiten diren lehiaketa horietan atera nituen sari batzuk. Baina bueno, negu honetan atera neban Iruñako Nazioarteko Bienalean sari bat, oso inportantea, oraingo hau bezain inportantea, baina ez du hainbeste oihartzunik izan. Hamar artista izan ginen aukeratuak eta ezezagun bakarreneu nintzen. Beste guztiak oso ezagunak ziren Espainia mailan. Jende horren artean egotea oso pozgarria izan zen.

**-Zer iritzi diezu horrelako lehiaketei?**


-Bi ideia kontrajarri ditut. Batetik, inportantea izan daitekeela uste dut sariketetan parte hartzea, lan egiteko aitzikia delako. Bestalde, pertsona baten lana ez dela sariekin mugatu behar, uste dut. Pertsonak bere kasa egin behar du lan. Sariak ez du motibazio bakarra izan behar.

**-Diru laguntza aldetik, nolakoa da artistaren bizi-modua?**

-Gehiengoarentzat, bizi-tza tristea da. Euskal Herrian honetatik bizi den oso jende gutxi dago. Nik emango nizkizuke lau edo bost izen, eta beste guztiak beste gauza batzuek eginez bizi gera. Eguna bi zatitan banatu eta goizetik ateratzen duzuna arratsaldean gastatzen egiten duzu.

**-Azalduko al zenuke zure pintatzeko estiloa?**

-Oso zaila da hori. Hitzek ezin dute pinturak adierazten duen guztia azaldu, pinturan sentazioak, koloreak, formak, usaiak, ideiak... sartzen baitira. Hitzak erabiltzearen, esango



*Jose Ramon Elorza Elgoibarren jaio zen duela 36 urte. Gaur egun Deban bizi da baina Altzolan ematen ditu arratsaldeak bainuetxetik gertu duen lantegi batean koadroak pintatzen. Izugarri gustatzen zaio Altzola, bertan dagoen 1643. urteko iturria batez ere.*

*Betidanik margotu izan du, baita Arte Ederrak egin aurretik ere. Asko bidaiatu du eta horri eskerrak pintura ezberdin ugari ezagutzeko aukera izan du. Donostiako "Asociacion Artistica" delakoan lanean eta ikasten ibilitakoa da eta pintatzeko zaletasuna bokazioz dator. Bizi izateko, ordea, bokazioa nahikoa ez dela ikusita, irakaskuntzan jarduten du, gero pintatu ahal izateko.*

nuke, abstrakzioaren munduan nabilela orain, formak eta koloreak lantzen. Horien bidez pintura sugerentea, emotiboa eta indartsua egin nahi dut. Jendeak ikustera koan bistarekin disfruta dezan nahi dut. Gaur egungo kezkak ditudanez, gaur egungo pintura egin nahi dut, pintura berria. Oinarrikoa da nerretzat. Gizakiaren barnera iristen den pintura

egitea da nere asmoa.

**-Elgoibarren zure pintura ikusteko aukerarik izango al dugu?**

-Elgoibarren aspaldi egin nuen erakusketa bat Errosario kalean. Gertatzen dena da erakusketa egiten deneko tokia gustatu egin behar zaidala. Tokia gustakoa bada, prest nago lana egin eta erakusteko. Leku interesgarria dagoenean egingo dut.

**23** Larunbata

**10,30 FUTBOLA**

Elgoibar- Tolosa (Infantilak)  
Tokia: Mintxeta

**11,00 SOZIOLINGUISTIKA  
IKASTAROA**

2. saioa  
Tokia: Kultur Etxea  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

**12,00 FUTBOLA**

Elgoibar- Aitzgorri (Kadeteak)  
Tokia: Mintxeta

**16,00 FUTBOLA**

Elgoibar- Aloñamendi (2. errejionala)  
Tokia: Mintxeta

**16,00 TELERADIESTESIA  
IKASTAROA**

Tokia: Kultur Etxea

**17,30 ESKUBALOIA**

Elgoibar-Tolosa (kadeteak)  
Tokia: Kiroldegia

**18,00 FUTBOLA**

Urki -Eibartarrak (2. errejionala)  
Tokia: Mintxeta

**19,00 ESKUBALOIA**

Elgoibar-Beasain (Jubenilak)  
Tokia: Kiroldegia

**24** Igandea

**12,00 FUTBOLA**

Urki -Arrasate (1. jubenila)  
Tokia: Mintxeta

**25** Astelehena

**19,00 INSTITUTUKO GURASO  
ETA TUTOREEN ARTEKO  
BILERAK**

Tokia: Batxillergo institutuan

**27** Asteazkena

**19,00 LANBIDE ESKOLAKO  
GURASO ETA TUTOREEN  
ARTEKO BILERAK**

Tokia: Lanbide Eskola

**29** Ostirala

**16,00 GARAPEN PERTSONA-  
LERAKO IKASTAROA**

Tokia: Kultur Etxea



**MIMOX**

*Azaroak 1*

*"Santu guztien eguna"*

.....  
**OSTIRALA-LARUNBATA-IGANDEA**

*Egun osoz zabalik*

**ASTELEHENA** eguerdiarte  
.....

**ENKARGUAK JASOTZEN DITUGU:**

- ❁ Lore solteak
- ❁ Nitxorako zentruak
- ❁ Hilobirako zentruak
- ❁ Panteoirako zentruak
- ❁ Lore natural zein artifizialeko erramuak

SAN FRANTZISKO, 19 -TEL. **74 42 13** - ELGOIBAR

**Etxebizitzak**

Bi gela eskeintzen ditut. Lo eta erropak garbitu **Tel. 74 09 44**

Mutil formala gela bila dabil. Lo egin eta arropa garbitu. Zentrikoa. Tratu familiarra. **Informazioa, Jauregi Inprentan. Felipe.**

Etxe bat salduko nuke. 100 m2 eta gela guztiek kanpora ematen dute. Urasandin. **74 42 65 Amaia**

**Lana**

Frantseseko klaseak ematen ditut maila guztietan, Frantsesa naiz eta titulua dut. Emakumeekin mintzamenaren lantzeko talde bat sortu nahi nuke arratsaldeko 3etatik - Setara bitartean. **74 04 59**

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak egiteko prest nago. **Ainhoa 74 16 89**

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientziaduna eta Eibarko erresidentzian hilabeteko praktikak egin ditut. **74 23 30 Elena**

Marrazketa Teknikoan arazok baldin badituzu klase partikularrak emateko prest nago. EFP eta BTiko ikasleei **Deitu 12:30etatik 2:30etara 74 04 69 zenbakira**

O.H.O.ko klase partikularrak emateko prest nago. Euskeraz badakit. **Ainhoa 74 36 39 /05 33**

Ingeniero industrialak matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz. **74 13 11 Javier**

Haur bat zaintzeko prest nago. Begirale bezala esperientzia. **Lorea 74 28 53**

Etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. **74 05 34**

Fisika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. Euskeraz eta erderaz. **74 23 01 Jokin**

**Salerosketak**

Sukaldeko altzariak salgai. XEY markakoak. Erabili gabeak. Prezio ezinhobea. **Amaia Tel.:74 09 23**

Bigarren eskuko kotxe bat erosiko nuke. Citroen C 15 furgoneta edo antzeko zerbait. Diesela. **Deitu: 74 36 34**

Kawasaki GPZ 500 S SS-AJ 10.000 km. **Tel. 74 28 32**

San Roke bailaran terreno batzuk salgai ditugu. **74 39 89 Rufina**

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak. **74 04 59**

Ford fiesta XR 2 salgai. SS-5581-V. Oso ondo zainduta. **Deitu 74 13 46**

Garaje itxi bat saltzen dut. Santa Ana 46an. 14 m2. **Tel. 74 28 32**

Motxila bat salgai. Neurri ertaina, poltsikoekin alboetan eta handitzeko posibilitatearekin. Prezio interesgarria. **74 26 09 Roberto**

SEAT MARBELLA SS AL salgai. 30.000 km. **Deitu 78 70 30**

Musika ekipo bat saltzen dut. Irratia, ekualizadorea, platina bat eta tokadiskoa. 25.000 pta. **Deitu 74 03 55 Iñigo**

Pastor aleman arrazako txakur kumeak saltzen ditut. Pedegree. Jatorri ezinhobekoak. **74 41 32 Fernando**

**SAINT - GERONS**

**Txokolateak**



75 5115

*Arpilgoeta, 37 Mendako*

# SEAT TOLEDO



**Orain SEAT TOLEDOk merkatuko baldintzarik hoberenak eskaintzen dizkizu**

Ez uko egin ezeri. TOLEDOak aparteko prestakuntzak eta puntako teknologiak duen kontsumoa eskaintzen dizu. Dena zure neurrirako ekipamenduarekin:

- ABS freno sistema. -Direkzio lagundua. -Aire egokitua. -Leiho igogailu elektrikoak.

Kotxe eder bat oso prezio onean. Ekonomiaz disfruta dezazun. Aldatu kotxea, ez bizimodua.

**SEAT**  
*Bai*

Nahiago baduzu, FISEATEk eskaintzen dizun ordainketa era aprobeatza dezakezu.

**Eibar Motor, S.A.** Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42. EIBAR